



PRESTAKUNTZA PLANA 2025



OIARTZUNGO
UDALA

1 . SARRERA	4
2. 2025. URTERAKO HELBURUAK	7
3. TALDEKAKO PRESTAKUNTZA	9
3.1 Komunikazio asertiboa eta gatazka konponketa herritarrekiko arretan	9
3.2 Aholkularitza batzordeari eta ikerketa batzordeari zuzendutako prestakuntza	10
3.3 Baso-lanetarako laguntza	11
3.4 Doluari buruzko ikastaroa	11
3.5 Eragile eraldatzaileak, oinarriak	11
3.6 Maskulinitateetan oinarrizko ikastaroa	13
3.7 Familias migradas atravesadas por violencia de genero y otras violencias	13
3.8 Trebakuntza-fitxa eta galdetegia jasotzea	14
3.9 Zibersegurtasun kontzientzia areagotzea eta giza arriskua murriztea	14
4. BANAKAKO PRESTAKUNTZA: IVAP, EUDEL, EUSKALIT, Q-EPEA ETA BESTE ERAKUNDE BATZUK	16
4.1. Hirigintzako estandarrak arautzen dituen 45/2025 dekretuaren aurkeztea.	16
4.2 “Acceso a mundo hacker”	16
4.3 Hondakinen kudeaketa	17
4.4 Berrikuntza tokiko sektore publikoan	17
4.5 Taller de actualización de recursos humanos y experiencias practicas	18
4.6 Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean. nazioarteko konferentzia	18
4.7 Seminario vasco de derecho local	19
4.8 Administrazioako hizkera eta testuak lantzen II	20
4.9 UIK Ikastaroa	20
4.10 Curso de plataformas elevadoras y trabajos en altura	20
4.11 KNX aurreratua	21
4.12 TIA portal siemens	21
4.13 Prebentzioko eta berrerabilpeneko tokiko araudiak: udalerria aldaketaren eragile gisa	22
4.14 Udalaren prebentzioko eta berrerabilpeneko dekalogoia osatzea	22
4.15 Autokonposta eta konposta komunitarioaren gida praktikoak ezagutzea	23
4.16 Informazio geografikoko sistemetan ikastaroa (QGIS)	23
4.17 Genero ikuspegia nola txertatu kontratazioetan (esleipen irizpideetan)	23
4.18 Hirigintza eta lurralde ikasketak ikastaroaren VI. modulua	24
4.19 Geoeuskadi bisorearen erabilera	25
4.20 Cómo renovar la ciudad en tiempos de crisis: actuaciones de dotación y complejos inmobiliarios	25
4.21 Capacitación para miembros de órganos técnicos de selección	25
4.22 Urbanismo, expropiación forzosa y energía	26

4.23	Máster en inteligencia artificial	27
4.24	Chat Gpt arkitektoentzat	27
4.25	Contratacion pública socialmente responsable	27
4.26	Procedimiento administrativo sancionador en la ley 39/2015 y en la ley vasca 1/2023	28
4.27	Chat Gpt ikastaroa ingeniari eta arkitektoentzat	28
4.28	Udaltop	29
4.29	Redacción de especificaciones técnicas: condiciones, solvencia, criterios de adjudicación y evaluación de ofertas	29
4.30	Hautzaro eta nerabezaroko sexu hezkuntza eta ongizate emozionala: erronkak, aukerak eta tresnak	29
4.31	“Género y urbanismo. retos y oportunidades”	30
4.32	Herramientas útiles para la consecución de la igualdad en la atención a la ciudadanía	30
4.33	Motozerrari txartela (ECC1)	31
4.34	Motozerrari txartela (ecc3)	31
4.35	ECC1 azterketak	32
4.36	ECC3ko azterketak	32
4.37	Idazkari kontu-hartzaileentzako oinarrizko prestakuntza praktikoa	33
4.38	Gestión de riesgos y adaptación al cambio climático a nivel	33
5.	AURREKONTUA	34
6.-	PRESTAKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK: GENEROA ETA EUSKARA	34
6.1.-	Generoa	34
6.2.-	Euskara	35

1 . SARRERA

Etengabeko aldaketa eta eraldaketa garai batean bizi gara. Teknologiaren bilakaerak, prozesuen digitalizazioak eta gizarte- eta lan-eskari berrien hazkundeak etengabe eguneratzea eskatzen digute. Testuinguru horretan, etengabeko prestakuntza funtsezko zutabea bihurtu da gaitasun profesionalak eta pertsonalak garatzeko eta hobetzeko.

Oiartzungo Udalean, badakigu eskaintzen dugun zerbitzu publikoak aldaketa horietara egokitu behar duela, gure herritarrei kalitatezko arreta eskaintzen jarraitu ahal izateko. Jendartea aldatu egiten da, beraien beharrak aldatu egiten dira ere eta, horrekin batera, eguneroko lana kudeatzeko moduak ere eboluzionatu egin behar du. Erritmo berean aurrera egiten ez badugu, atzean geratzeko arriskua dugu, enplegatu publiko gisa dugun eraginkortasunari ez ezik, ematen dugun zerbitzuaren kalitateari ere eraginez.

Etengabeko prestakuntza ez da soilik gure trebetasun teknikoak hobetzeko tresna bat, baizik eta hazkunde pertsonal eta profesionalerako aukera bat. Proaktiboagoak izatea ahalbidetzen digu, erronkei konfiantza handiagoz aurre egitea eta agertzen diren problematikei irtenbide berritzaileak ematea. Eskuratzen dugun ikaskuntza bakoitzak gure gaitasun indibiduala ez ezik, taldearena eta erakundearena ere indartzen du.

Horregatik, 2025eko Prestakuntza Plana funtsezko ekimena da aldaketekin eguneratuta egoteko, gaitasun berriak eskuratzeko eta eremu publikoan ezartzen diren eskakizun berrietara egokitzeke. Plan hau gure gaitasunak hobetzeko, lan-prozesuak optimizatzeko eta udaleko arlo guztietan elkarlaneko giro eraginkorra sustatzeko diseinatu da.

Plan honetan proposatutako prestakuntza ez da aukera bat, premia bat baizik. Oraingo erronketarako prestatzeaz gain, etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko ere prestatzen gaitu; eta gure udalerrriaren aurrerapenean ere lagunduko dute, gure bizilagunentzako zerbitzua hobetuz eta Oiartzungo Udalaren irudia eta eraginkortasuna indartuz.

Elkarrekin, datorrenerako prest gaudela ziurta dezakegu. 2025 hau aukera bat da gure eskumenak indartzeko eta udal moderno bat eraikitzen jarraitzeko, egungo garaietara egokitua eta etengabeko hobekuntzarekin konprometitua.

2025eko Prestakuntza Plana Oiartzungo Udalean martxan jartzen dugun lehena da, eta horregatik esperientzia pilotutzat hartu behar dugu. Hasierako urrats honek aukera emango digu ikasitakoaren gaineko balorazioa egiteko, prestakuntza-beharren identifikazioa zehaztasun handiagoz lantzeko eta metodologia egokitzeko. Horrela, etorkizunean plan eraginkorrak diseinatu ahal izango ditugu. Beraz, dokumentu honek ez ditu soilik aurten garatuko diren prestakuntza-ekintzak jasotzen, baizik eta datozen urteetako udal prestakuntza-politiken hobekuntzarako abiapuntu sendoa ere ezartzen du.

Bestalde, ezin dugu ahaztu langileak berak ere ardura duela bere gaitasun-gabeziak antzematen eta horiek gainditzeko saiatzen; bai prestakuntzaren bidez, bai beste baliabide batzuen bidez. Horregatik, oso garrantzitsua da prestakuntza-beharren diagnostiko fasea, non langile bakoitzak aukera duen arlo honetan dituen beharrak adierazteko, ahal den neurrian horiei erantzun ahal izateko.

Bestalde, legediari dagokionez, Enplegu Publikoen Oinarrizko Estatutu Legearen testu bateginak, 14. artikuluan, enplegu publikoek *"etengabeko prestakuntzarako eta beren ezagutza eta gaitasun profesionalak etengabe eguneratzeko duten eskubidea"* jasotzen du. Horrek lege-estaldura dakar, eta, aldi berean, administrazio publikoan prestakuntza-programak garatzeko agindua, haren zerbitzura dauden langileentzat.

Zentzu berean arautzen du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 161. artikulua jasotzen denean *"etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, lehentasunez, lan-ordutegiaren barruan"*.

Halaber, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 2.2. artikulua. Honek printzipio batzuk jasotzen ditu administrazioak jarraitu beharrekoak, eta h) hizkiak espresuki honako agindua ematen dio administrazioari: *"enplegu publikoaren etengabeko garapena eta gaikuntza; horretarako, lanpostuan aritzeko behar diren konpetentzietara egokitu beharko da prestakuntza, eta aurrerapen profesionalera bideratu"*.

Bestalde, 85.6 artikulua karrerako profesionala arautzen duenean, 6. zenbakian jasotzen du euskal administrazio publikoek, genero-ikuspegia integratua duten giza baliabideen politikekin bat etorriz,

behar den prestakuntza eskaini beharko dietela karrerako funtzionarioei lanean aurrera egiteko modua izan dezaten, eta, sustapenari begira nahiz garapen profesionalari begira, aurrera egin dezaten antolaketaz erabakitzen diren lanpostuetan edo lanpostu-multzoetan.

Azkenik, Udalhitzeko 96. artikulua prestakuntza arautzen duenean toki erakundeei honako agindua ematen die: beren enplegatu publikoen prestakuntza-beharrei buruzko ebaluazio egiteko eta behar horien arabera prestakuntza-planak prestatzeko. Gaineratzen du prestakuntza-eskaintza behar bezala funtziona dezan, sindikatuen ordezkariekin negoziatuko direla behar horien ebaluazioa eta planen prestaketa, beren ekarpen eta iradokizunez eskaintza aberats dezaten.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak 18.1 eta 18.2 artikuluetan ezartzen du trebakuntza betebeharra nola egikaritu behar den administrazio-jardueran genero-ikuspegia benetan txertatzea ahalbidetuko duen jakintza praktikoa bermatzeko.

Oiartzungo Udalak bere egiten ditu, 2022ko ekainaren 29an Osoko Bilkuran onarturiko Oiartzungo Politika Feministen I. Planaren Gobernantza ataleko G.1.3. eta G.4.2. eta G.4.4 ekintzetan betebeharrak horiek jasoz.

Bukatzeko, Oiartzungo Udalak prestakuntza-plan honetan genero ikuspegia integratu du eta horrek duen garrantzia azpimarratu nahi du. Horren bidez, besteak beste, gizon eta emakumeek prestakuntzarako sarbide bera izatea bermatu nahi du, egon daitezkeen oztopo edo aurreiritzi estrukturalak ezabatuz, eta ohiko prestakuntzak estereotipoak indartu ditzake genero-ikuspegiarik ez badu (adibidez, emakumeak ikusezin bihurtzen dituzten adibideak edo hizkuntza ez inklusiboa), eta udalak ziurtatu nahi du edukiek eta metodologiek inklusiboak eta langileen aniztasuna islatzen dutenak izatea. Halaber, genero-ikuspegia duen prestakuntzak lan-ingurune inklusiboagoak sustatzen ditu, eta horrek langileen motibazioa eta konpromisoa handitzen ditu, eta diskriminazioa eta era guztietako jazarpena prebenitzen laguntzen du, berdintasuna eta genero-sentsibilizazioa sustatzen duten saioen bidez.

Laburbilduz, prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzea antolaketa-eraginkortasuna, lan-gogobetetzea eta lanbide-garapen ekitatiboa sustatzeko modu bat da.

2. 2025. URTERAKO HELBURUAK

1. Langile publikoen gaitasun profesionalak hobetzea: Plan honen helburu nagusia da Oiartzungo Udaleko langileei egungo aldaketetara eta erronketara egokitzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta ezagutzak ematea. Prestakuntza espezializatuen bidez, langile bakoitzak bere eginkizunak eraginkortasun eta kalitate handiagoarekin bete ahal izatea bilatzen da.
2. Etengabeko ikaskuntzaren kultura sustatzea: langileen artean prestakuntzarekiko eta garapen profesionalarekiko jarrera proaktiboa sustatzea. Plan honen helburua etengabeko hobekuntza eguneroko lanaren zati integral gisa ikusten den kultura bat sortzea da, plantilla gaitua eta eguneratua mantentzen lagunduz.
3. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea: Prestakuntza-plan honen helburua da benetako genero-berdintasuna sustatzea lan-ingurunean, udal barruan garapen, prestakuntza eta sustapen aukera berdinak izango dituztela ziurtatuz. Genero-berdintasunari, sentsibilizazioari eta alborapenen prebentzioari buruzko prestakuntza espezifikoaren bidez, erakundearen maila guztietan ekitatea errealitate izango den giroa sortzea bilatzen dugu. Genero berdintasunarekiko konpromiso hori funtsezkoa da lan-ingurune bidezkoa, errespetuzkoa eta inklusiboa bermatzeko. Bestalde, otsailaren 28ko 4/2023 Legearekin bat, planak konpromisoa hartzen du, lehenengo urrats bezala (hurrengo urteetan prestakuntza espezifikoak eskaini nahi dira), pertsona transen eta LGTBI kolektiboaren berdintasuna eta eskubideak zeharka bermatzeko, dagokien prestakuntza ekintzetako edukietan eta metodologian aniztasuna, errespetua eta diskriminazio-eza txertatuz.
4. Udalaren digitalizazioa eta modernizazioa sustatzea: Sektore publikoa gero eta gehiago digitalizatzen ari denez, planaren helburua da langileak teknologia eta tresna digital berrien erabileran trebatzea, barne-prozesuak optimizatzeaz gain, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
5. Teknologia berrien laguntzarekin, udalaren zeregin errepikakorrenak eta errutinazkoenak arindu nahi dira, langileek sormenezko eta harremanezko eginkizunetan ikuspegi bat izan dezaten, hala nola erabakiak hartzean, enpatian eta arazo konplexuak konpontzean. Horrela, administrazio-prozesuen eraginkortasuna hobetu dezakegu, makinei prozesu luze eta mekanikoak utziz, enplegatuek herritarrari garrantzi handiagoa ematen dioten bitartean, zerbitzu hurbilagoa eta kalitatezkoagoa eskainiz.

6. Herritarrarentzako arreta eta zerbitzua hobetzea: Plan honen zutabeetako bat da udaleko langileak kalitatezko arreta bizkorra eta herritarren eskaera berrietara egokitua eskaintzeko prestatuta daudela bermatzea. Prestakuntzak langileek bizilagunen beharrak modu eraginkorrean konpondu ahal izatea eta herritarren gogobetetasuna hobetzea bilatuko du.
7. Langileen ongizatea funtsezkoa da lan-ingurune osasungarria, produktiboa eta iraunkorra bermatzeko. Oiarzungo Udalean, emozionalki motibatuta eta orekatuta dauden langileak produktiboagoak izateaz gain, beren lanarekin eta eskaintzen dugun zerbitzu publikoarekin konprometituagoak direla uste dugu. Horregatik, prestakuntza-planak lantaldeen kudeaketa hobetzeko, estresa kudeatzeko, adimen emozionala garatzeko eta ongizate fisiko eta mentalerako moduluak biltzen ditu.

Prestakuntza horien helburua ez da soilik maila profesionalean hobetzea, lan-ohitura osasungarriak sustatzea eta bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko oreka indartzea ere. Lan-ingurune positiboa eta ongizatera bideratua funtsezkoa da, batez ere, langile bakoitzak bere onena eman dezan bermatzeko, bere osasun mentala eta garapen profesionala lehenesten dituen giroan.

3. TALDEKAKO PRESTAKUNTZA

3.1 Komunikazio asertiboa eta gatazka konponketa herritarrekiko arretan

- **Eremua:** Idazkaritza- GGBB – Herritarren Arreta Zerbitzua
- **Helburuak:**
 - Harrera-zereginetako erronkak, estrategiak eta konponbideak lantzea.
 - Herritarrei arreta eraginkorra eskaintzeko beharrezkoak diren komunikazio-trebetasunak garatzea: entzute aktiboa, enpatia, asertibitatea...
 - Gatazkak kudeatzea eta prebenitzea: modu asertiboan eta eraikitzailean kudeatzen ikastea
 - Tresna eta teknika zehatzei buruzko ezagutza eta trebetasun praktikoa eskuratzea.
 - Komunikatzeko eta beharrezkoak diren tresna eta gaitasun berriak eskuratzeko norberaren gaitasunez eta oztopoez jabetzea
- **Metodologia:**
 - Trukea eta praktikotasuna izango dira ardatz. Talde-dinamikak, rol-jokoak eta talde-lana erabiliko dira.
 - Oinarri teoriko eta gako nagusietatik abiatu.
 - Benetako kasuen analisi eta simulazio praktikoa erabiliko da.
 - Irtenbideak bilatzeko talde-ariketak egingo dira.
 - Egoera desberdinak interpretatuko dira, aldaera eta aukera desberdinekin trebatuz.
 - Parte-hartzaileek beren esperientziak eta erronkak partekatu ahal izango dituzte (aukeran), orientazio zehatzak jasotzeko.
- **Norentzat:** HAZ 4 langileentzat.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 4
- **Ordu kopurua:** 16 ordu
- **Ordutegia:** 10.00-14.00
- **Erakunde antolatzailea:** Leyre Cano Txokarro
- **Lekua:** Presentziala
- **Data:** 2025eko uztaila eta iraila
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 2420 euro

3.2 Aholkularitza batzordeari eta ikerketa batzordeari zuzendutako prestakuntza

- **Eremua:** Genero berdintasuna
- **Helburuak:**
 - Protokoloa ezagutzea eta ulertzea: Oiartzungo Udalaren sexu-jazarpenaren, sexuagatiko jazarpenaren eta bestelako jokabide diskriminatzaileen aurrean jarduteko I. protokoloaren edukiak, printzipioak eta prozedurak zehatz-mehatz aztertzea.
 - Kontzeptuak bateratzea: sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta diskriminazioa bezalako terminoak modu argi eta bateratuan ulertzea, interpretazio desberdinak saihesteko.
 - Batzordeen rola eta erantzukizunak argitzea: Aholkularitza Batzordeak eta Ikerketa Batzordeak protokoloaren aplikazioan izan behar duten zeregina eta eskumenak ondo identifikatzea.
 - Kudeaketa-prozesuak barneratzea: protokoloaren aktibazioan, ikerketan, babes-neurrien ezarpenean eta ebazpen-prozesuan jarraitu beharreko urratsak praktikan lantzea.
 - Gatazka-egoeren kudeaketan trebatzea: egoera erreal edo hipotetikoaren aurrean erantzuteko estrategia eta tresna praktikoak lantzea, segurtasuna, konfidentziasuna eta biktimaren babesa bermatuz.
 - Koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea: batzordeetako kideek eta haien ordezkoei elkarren artean, eta udaleko gainerako eragileekin, modu eraginkorrean lan egiteko gaitasunak garatzea.
 - Kultur aldaketa bultzatzea: udalaren barnean errespetua, berdintasuna eta tolerantzia sustatzeko jarrerak indartzea, prebentzioa protokoloaren aplikazioaren osagarri gisa txertatuz.
- **Metodologia:** Aurrez-aurrekoa.
- **Norentzat:** Aholkularitza Batzordeko eta Ikerketa Batzordeko kideei, baita hauen ordezkoei izan daitezkeen lankideei ere.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 7
 - Gizonak: 3
- **Ordu kopurua:** 10 ordu
- **Erakundea:** Abella SL
- **Lekua:** Oiartzun
- **Data:** Azaroa-abendua
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** Zehazteke.

3.3 Baso-lanetarako laguntza

- **Eremua:** Heltzea zaila den lekuetako baso-lanetako istripuetarako jarduera-protokoloak
- **Norentzat:** Basozaina eta baso ofizialak.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 3
- **Parte-hartzaileen gehieneko kopurua:** 3
- **Ordu kopurua:** 12 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Hazi
- **Lekua:** Hazi Miramón, Donostia.
- **Data:** 2025eko apirilaren 9tik apirilaren 10era
- **Ordutegia:** 9h-14h
- **Aurrekontua:** 0

3.4 Doluari buruzko ikastaroa

- **Eremua:** Herritarrei zein erabiltzaileen dolu egoeran laguntzea. Herritarrei dolua egiten laguntzea eta profesionalak heriotza-kasuetarako laguntzea.
- **Helburuak:** Oiartzungo Udalak udaltzaingo saileko langileei zein etxez etxeko laguntzaileei zuzendutako doluaren inguruko prestakuntza saioak, profesional horiek herritarrei zein erabiltzaileen dolu egoeran laguntzeko.
- **Norentzat:** Udaltzaingo agenteak eta etxez etxeko laguntzaileentzat.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 15
 - Gizonak: 18
- **Ordu kopurua:** 20 ordu guztira (8 saio 2,5 ordukoak: 4 udaltzaingoarentzat eta beste 4 etxez etxeko laguntzaileentzat)
- **Erakunde antolatzailea:** Aingeru Oiartzabal Rivera
- **Lekua:** Udaletxea
- **Data:** 2025eko Otsailean (asteartero, bi taldetan banatua)
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 1.520 euro

3.5 Eragile eraldatzaileak, oinarriak

- **Eremua:** Erakunde-eraldaketa eta lidergoa.
- **Helburuak:**
 - Eraldaketaren kontzeptuak eta inplikaturako eragileen rola argitzea.
 - Aldaketa-prozesuetan lidergo-trebetasunak eta taldeen kudeaketa garatzea.
 - Eraldaketan esku hartzen duten faktore operatiboak, estrategikoak eta kritikoak identifikatzea.
 - Proiektu eraldatzaileen plangintza, gauzatzea eta jarraipena sustatzea.
- **Norentzat:**
 - **A taldea:**
 - Kontuhartzailea
 - Idazkaria
 - Hirigintzako arduraduna
 - Gizarte zerbitzuen arduraduna
 - Etxez etxeko koordinatzailea
 - Udaltzaingoko subofiziala
 - Udaltzaingoko bi agente lehenak
 - Mendi eta Ingurumeneko teknikaria
 - Berrikuntzako eta komunikazioko teknikoa
 - Giza baliabideetako arduraduna
 - **B taldea:**
 - Gobernu taldeko hainbat kidea
- **Ordu kopurua:**
 - 25 ordu (5 orduko 5 saio A taldearentzat)
 - 10 ordu (5 orduko 2 saio B taldearentzat)
 - Saio guztiak: 9:00etatik 14:00etara
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 9
 - Gizonak: 10
- **Erakunde antolatzailea:** EHU
- **Lekua:** Oihartzungo Udaletxean
- **Data:**
 - A Talderako saioak (teknikariak): 2025eko apiriletik uztaile 5 saioa, bakoitza 5 ordukoa (guztira 25 ordu)
 - B Talderako saioak (Gobernu taldea): 2025eko ekainean eta uztaile 2 saio, 5 ordukoa (guztira 10 ordu)
- **Hizkuntza:** Euskara

- **Aurrekontua:** 6.983,39 euro

3.6 Maskulinitateetan oinarritzko ikastaroa

- **Eremua:** Maskulinitateetan trebakuntza
- **Helburuak:** Zehazteke.
- **Norentzat:**
 - 3 udaltzainek
 - Elektrikari batek
 - Arkitekto berria
 - Aparejadore berria
 - Kirol teknikari berria
- **Generoa:**
 - Gizonak: 7
- **Ordu kopurua:** 10 ordu
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Lekua:** Udalean.
- **Data:** Zehazteke. (urria, azaroa ala abendua, zehazteke)
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** Zehazteke.

3.7 Familias migradas atravesadas por violencia de genero y otras violencias

- **Eremua:** Gizarte Zerbitzuak: gizarte langileak.
- **Helburua:**
 - Genero-indarkeriaren fenomenoaren oinarritzko elementuak partekatzea eta bere eragin traumatikoa emakumearengan eta biktima diren seme-alabengan.
 - Migratutako familien egoeraz eta zeharkako indarkerien gainean hausnartzea: Interseksionalitatea.
 - Genero-indarkeria eta beste indar matxisten kasuak lantzeko gako-elementuak kudeatzea.
 - Zerbitzuaren errealitatera egokitutako familia-laguntzarako estrategiak aztertzea.
 - Generoaren ikuspegi ekofeminista hausnartzea diagnosian eta esku-hartze psikosozialean: Profesionalaren begirada.
- **Norentzat:** Gizarte langileak.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 4

- Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 16 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** Euskadiko eta Nafarroako Familia Terapia Eskola.
- **Lekua:** Oiartzungo Udala.
- **Ordutegia:** 10:00 – 14:00
- **Data:** 2025eko urritik 2026ko otsailera, 4 saio.
- **Hizkuntza:** Gaztelania
- **Aurrekontua:** 2.300 euro.

3.8 Trebakuntza-fitxa eta galdetegia jasotzea

- **Eremua:** Trebakuntza-fitxa eta galdetegia jasotzea, online.
- **Helburuak:** Udal langileei testu argi eta ulergarriak sortzeko aholkuak ematea eta ohiko erdarakaden eta hizkuntza paisaiaren inguruan trebatzea.
- **Norentzat:** Langile guztientzat
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 58
 - Gizonak: 54
- **Erakunde antolatzailea:** UEMAKo trebakuntza lantaldeko hizkuntz normalizatzailea. Udaleko Hizkuntz normalizaziorako teknikariaren bidez.
- **Lekua:** On line
- **Data:** Hilean behin
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 0

3.9 Zibersegurtasun kontzientzia areagotzea eta giza arriskua murriztea

- **Helburuak:** Udalaren sistema informatikoa babestea langileen ziberkontzientzia modu automatizatuan eta pertsonalizatuan indartuz.
- **Norentzat:** Ordenagailuetan lan egiten duten enplegatu guztientzat
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 44
 - Gizonak: 34
- **Erakunde antolatzailea:** Informatika saila.
- **Lekua:** On line
- **Data:** Hilean behin galdetegi bat bete behar dute partaideek.

- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 3.085,50€ (BEZa barne).

4. BANAKAKO PRESTAKUNTZA: IVAP, EUDEL, EUSKALIT, Q-EPEA ETA BESTE ERAKUNDE BATZUK

Jarduera instrumentalak dira, eguneroko lanek eragiten dituzten premiei erantzuteko ikastaroak (sail bakoitzean aztertu eta adostekoak).

4.1. Hirigintzako estandarrak arautzen dituen 45/2025 dekretuaren aurkeztea.

- **Eremua:** Hirigintzako estandarrak arautzen dituen 45/2025 Dekretuan jasotako alderdi nagusiak aztertzea.
- **Helburuak:** Hirigintzako estandarrak arautzen dituen 45/2025 Dekretuaren alderdiak ezagutzea eta aztertzea.
- **Norentzat:** Arkitekto arduraduna eta ABE teknikaria-letradua.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 4 ordu
- **Ordutegia:** 09:30- 13:30
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP
- **Lekua:** Kurtsal Kongresu- jauregia, 4-5 gelak.
- **Data:** Martxoaren 28a
- **Hizkuntza:** Gaztelera
- **Aurrekontua:** 81,90 euro

4.2 “Acceso a mundo hacker”

- **Eremua:** Informatika eta telekomunikazioak
- **Helburuak:** : Estatuko zibersegurtasunari buruzko ekitaldirik handiena da. Ekitaldian aditu ospetsu nazional eta nazioartekoek parte hartzen dute. Agendak hitzaldiak, mahai-inguruak eta gaurkotasuneko gaiak jorratzen dira eta tailer praktikoak barne hartzen ditu.
- **Norentzat:** Informatikari laguntzailearentzat.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 16 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Mundo Hacker, Globb tv, Stack Overflow

- **Lekua:** : P.º de Juan XXIII, 3, 28040 Madril
- **Data:** 2025eko apirilaren 23an
- **Hizkuntza:** Gaztelera
- **Aurrekontua:** 0

4.3 Hondakinen kudeaketa

- **Eremua:** Ingurumena
- **Helburuak:**
 - Hondakinen arloko araudia eta plangintza ezagutzea. Zein helburu diren orokorrak eta zeintzuk eragiten dieten toki-erakundeei.
 - Nola ekin hondakinen arloko ikuskaritzari.
 - Produktuaren erantzukizun zabaldua eta tokiko erakundeen inplikazioak ezagutzea.
 - Nola heldu praktikan betebeharrak: egin beharreko jarduketak, beharrezko baliabideak eta babes politikoaren garrantzia.
 - Nola heldu tokiko eskumena duten hondakinen bilketa- eta tratamendu-tasari.
 - Ezarritako helburuetara iristea lortu duten arrakasta-kasuak ezagutzea.
 - Hondakinen gaikako bilketa hobearen ondorio ekonomikoak ezagutzea.
- **Norentzat:** Hondakinetako erdi mailako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP
- **Lekua:** San Bartolome 28, Donostia 20007
- **Ordutegia:** 09:00 - 14:00
- **Data:** 2025eko apirilaren 3tik 4era
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 119,70 euro

4.4 Berrikuntza tokiko sektore publikoan

- **Eremua:** Kontratazioa eta giza baliabideetan berrikuntza
- **Helburuak:** Kontratazioan eta Funtzio publikoan arloetan ematen ari diren azken berrikuntzak ezartzeko ikastaroa.
- **Norentzat:** Kontratatazio teknikaria-letradua.

- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Consultores de Gestión Pública
- **Lekua:** Durango
- **Data:** 2025/01/10 eta 2025/01/17
- **Hizkuntza:** Gaztelera
- **Aurrekontua:** 280 euro.

4.5 Taller de actualización de recursos humanos y experiencias practicas

- **Eremua:** Giza baliabideen tratamendua ikuspegi bikoitzetik: jurisprudentziaren azterketa eta zalantzak konpontzeko tailer praktikoa.
- **Helburuak:** Giza baliabideen arloan azken urtean garatu diren berrikuntzei buruz daukaten ezagutza eguneratzea, bai araudi-mailan, bai jurisprudenzian eta dokumentazioan. Espazio bat edukitzea udalean edo toki-erakundeetan giza baliabideen arloan sortzen diren arazoak edo gai kritikoak planteatu ahal izateko. Espazio horretan, planteatutako arazoen aurreko irtenbideak aurkitu ahal dira. Izan ere, irakasleek aldeztu aurretik aztertuko dituzte helarazten zaizkien gaiak, eta aurreztu aurreko saioan jorratuko dira, ikasleekin partekatu eta eztabaidatzeko.
- **Norentzat:** Giza baliabideen arduraduna.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 5 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP
- **Lekua:** San Bartolome 28 – Donostia, 20007
- **Data:** Apirilaren 3 eta urriaren 23a
- **Ordutegia:** 9:00- 14:00
- **Hizkuntza:** Gaztelera
- **Aurrekontua:** 91,90 euro

4.6 Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean. nazioarteko konferentzia

- **Helburuak:** Nazioarteko konferentzia honek bi helburu nagusi izango ditu:

- Arnasguneek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantziaz gogoeta eragitea Europako hizkuntza gutxituen eremuan.
- Arnasguneetan hizkuntza gutxituek duten egoera soziolinguistikoa indartzeko proposamenak eta neurriak plazaratzea.
- **Norentzat:** Euskara normalizaziorako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 15 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** UEU.
- **Lekua:** Azpeitia - Soreasu antzokia
- **Data:** Urriaren 16 eta 17
- **Ordutegia:** 9:00-18:00
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 60 euro.

4.7 Seminario vasco de derecho local

- **Eremua:** Tokiko administrazioaren arlo ezberdinetako prestakuntza saioak (arlo jurikoaren ikuspegitik).
- **Helburuak:** EAEko toki-erakundeetako langile juridikoei beren funtzioak kalitate profesional handiagoarekin garatzeko beharrezkoak diren tresnak emateko helburua du.
- **Norentzat:** Idazkaria.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 20 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP eta EUEDEL
- **Lekua:** Maria Diaz de Haro, 11 kalea, Bilbo.
- **Ordutegia:** 9:30-13:30
- **Data:** 2025/05/03-2025/11/22 (5 saioetan banatuta)
- **Hizkuntza:** 1. eta 4. saioak euskaraz izango dira, eta 2. 3. eta 5. saioak erderaz.
- **Aurrekontua:** 200 euro

4.8 Administrazioko hizkera eta testuak lantzen II

- **Helburuak:** Udal langileak administrazioko hizkeran trebatzea, eta ohiko hizkuntz akatsak zuzendu eta testu argiak eta ulergarriak sortzeko irizpide batzuk izatea.
- **Norentzat:** 6-12 langile (gutxienez 3HE edo EGA egiaztatuta duten udal langileak).
- **Generoa:**
 - Emakumeak: Zehazteke
 - Gizonak: Zehazteke
- **Ordu kopurua:** 12 ordu (3 orduko 4 saio, astean 1)
- **Erakunde antolatzailea:** UEMA.
- **Lekua:** Udalean.
- **Ordutegia:** Zehazteke
- **Data:** Zehazteke
- **Hizkuntza:** Euskara
- **Aurrekontua:** 0

4.9 UIK Ikastaroa

- **Eremua:** Kontratazioa
- **Helburuak:** Kontratazio plegu hobeak egitea eta kontratazioetan klausulak sartzeko trebeziak hobetzea
- **Norentzat:** Berdintasun teknikaria
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP
- **Lekua:** Online
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Azaroak 19-25
- **Hizkuntza:** Gaztelania
- **Aurrekontua:** 106,5 euro

4.10 Curso de plataformas elevadoras y trabajos en altura

- **Eremua:** Lan prebentzioa
- **Helburuak:** Elebadoreak alokatzen ditugunean lanean aritu ahal izateko.
- **Norentzat:** Elektrikari teknikaria.

- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** Zehazteke.
- **Erakunde antolatzailea:** Zehazteke.
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Zehazteke.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 120 euro.

4.11 KNX aurreratua

- **Eremua:** Instalazio elektrikoak.
- **Helburuak:** Instalazio domotikoan, programazioan ezagutza handitzea. Horrek eragin zuzena du lana hobetzen.
- **Norentzat:** Elektrikaria.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 30 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** Conitec.
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Zehazteke.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 600 euro.

4.12 TIA portal siemens

- **Eremua:** Automatizazio elektrikoa.
- **Helburuak:** Instalatuak dauzkagun automatekin lana egokiago egiteko..
- **Norentzat:** Elektrikarientzat (2 edo 3 langileentzat).
- **Generoa:**
 - Gizonak: 3
- **Ordu kopurua:** Zehazteke.
- **Erakunde antolatzailea:** Siemens edo antzekoa.
- **Lekua:** Zehazteke.

- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Zehazteke.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 4200 euro

4.13 Prebentzioko eta berrerabilpeneko tokiko araudiak: udalerrria aldaketaren eragile gisa

- **Eremua:** Hondakin kudeaketa
- **Helburuak:** Udalerrrian hondakinen prebentzioa eta berrerabilpena bultzatzea.
- **Norentzat:** Hondakinen erdi mailako teknikaria.
- **Ordu kopurua:** 9 ordu.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Erakunde antolatzailea:** Hobeki.
- **Lekua:** Online.
- **Ordutegia:** 8:30-10:00.
- **Data:** Apirila-Azaroa.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 0

4.14 Udalaren prebentzioko eta berrerabilpeneko dekalogoia osatzea

- **Eremua:** Hondakinen Prebentzio eta baliabideen kudeaketa.
- **Helburuak:** Udal mailan hondakinen prebentzioko eta berrerabilpeneko dekalogoia sortzea.
- **Norentzat:** Hondakinen erdi mailako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 9 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** Hobeki.
- **Lekua:** Online.
- **Ordutegia:** 8:30-10:00.
- **Data:** Apirila-Azaroa.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 0.

4.15 Autokonposta eta konposta komunitarioaren gida praktikoak ezagutzea

- **Eremua:** Tokiko ingurumen kudeaketa.
- **Helburuak:** Konpostaren ikuskapenak egiteko kontrol-irizpideak hobeto ezagutzea.
- **Norentzat:** Hondakin hezitzailea.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** Zehazteke.
- **Erakunde antolatzailea:** Ihobe.
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Zehazteke.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** Zehazteke.

4.16 Informazio geografikoko sistemetan ikastaroa (QGIS)

- **Eremua:** Datu geografikoen kudeaketa eta lurralde analisia.
- **Helburua:** Informazio geografikoa aztertu, kudeatu eta lantzeko programa erabiltzen ikastea.
- **Norentzat:** Mendi ingurumen teknikaria
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** Zehazteke.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Maiatza-Azaroa.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** Zehazteke.

4.17 Genero ikuspegia nola txertatu kontratazioetan (esleipen irizpideetan)

- **Eremua:** Genero berdintasuna.
- **Helburua:** Kontratazioetan (esleipen irizpideetan) genero ikuspegia txertatzeko ezagutza izatea eta ereduak landuta izatea.
- **Norentzat:** Teknikarientzat.
- **Generoa:**

- Emakumeak: 2
- **Ordu kopurua:** Zehaztu gabea (30 ordu inguru).
- **Erakunde antolatzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Lekua:** Gipuzkoako Foru Aldundian.
- **Ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara
- **Data:** Urte osoan zehar.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 0.

4.18 Hirigintza eta lurralde ikasketak ikastaroaren VI. modulua

- **Helburua:**
 - **Plangintza orokorraren azterketa egin:** Egitura-plangintza landu. Hiri-nukleo osoa eta antolaketa-proposamena aztertu. Lurraldearen egitura orokorra eta organikoa ezarri. Lurraren sailkapena burutu.
 - **Plangintza xehatuaren ariketa egin:** Dagozkion estandarrak finkatu.
 - **Udalerrriaren birpartzelazio-proiektua prestatu:** Aztertutako lurraldea kontuan hartuta.
- **Norentzat:** Arkitektoa.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 48 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** Bilbo.
- **Data:**
 - Maiatzak 23
 - Maiatzak 28-29
 - Ekainak 4-5
 - Ekainak 11-12
- **Ordutegia:** 09:30 - 13:30, 14:30 - 18:30
- **Hizkuntza:** Gazteleraz.
- **Aurrekontua:** 425,25 euro.

4.19 Geoeuskadi bisorearen erabilera

- **Helburua:** Ikastaroan ezagutuko dira GeoEuskadi bisoreak, mapak eta informazio georeferentziatua kontsultatzeko, aztertzeke, kargatzeko edo editatzeko dituen tresnak.
- **Norentzat:** Arkitekto teknikoak eta delineantea.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
 - Gizonak: 2
- **Ordu kopurua:** 10 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** Donostia
- **Ordutegia:** 9:00-14:00.
- **Data:** Urriaren 15a eta 16a.
- **Hizkuntza.** Euskara
- **Aurrekontua:** 119,70€

4.20 Cómo renovar la ciudad en tiempos de crisis: actuaciones de dotación y complejos inmobiliarios

- **Helburua:** Higiezinaren egungo egoera eta araudia ezagutaraztea da, eta zuzkidura-jarduketak aztertzea.
- **Norentzat:** ABE teknikaria-letradua.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 5 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** RDU.
- **Lekua:** On line.
- **Ordutegia:** 9:00-14:00.
- **Data:** Uztailaren 1.
- **Hizkuntza.** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 97,75 €

4.21 Capacitación para miembros de órganos técnicos de selección

- **Helburua:** Administrazio publikoko hautaketa-prozedurei aplikatu beharreko arau-esparruaren ikuspegi zehatza ematea, arreta berezia jarritz 39/2015 eta 40/2015 Legeetan, eta hautaketa-prozesuetan bitarteko elektronikoen erabilera aztertzea, funtsezko elementua baita egungo e-

administrazioaren testuinguruan haien jarraitutasuna bermatzeko, bai eta hautaketa-organoen erregulazio juridikoa ere. Era berean, Auzitegi Gorenaren doktrina-bilakaera aztertuko da, organo horien "diskrezionalitate teknikoari", mugei eta oposizioegileen eskubideetan duen eraginari dagokienez, hala nola frogetarako sarbidea, motibazioak eta balorazioak. Azterketa hori funtsezkoa da prozedura gardenagoak eta berme juridiko handiagokoak bermatzeko. Gainera, ikastaroan datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europakoa aztertzen dira, eta araudi hori hautaketa-prozesuetan aplikatzen da. Helburua da ikasleei beharrezko ezagutzak ematea hautaketa-organoetako kide gisa dituzten funtzioak eraginkortasunez eta legez modu seguruan kudeatzeko.

- **Norentzat:** Giza baliabideetako arduraduna.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 40 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** CEMCI.
- **Lekua:** On line.
- **Ordutegia:** 9:00-14:00.
- **Data:** Urriaren 15etik azaroaren 11ra.
- **Hizkuntza.** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 250 €

4.22 Urbanismo, expropiación forzosa y energía

- **Helburua:** Hirigintza-Lurralde Antolamendua eta Energia gai nagusiak dira gizartean, ekonomian, ingurumenean eta abarretan, eta azterketa orokor eta bateratua behar dute jokoan dauden interesak behar bezala kudeatu ahal izateko. Horregatik, jardunaldiaren helburua da, lehenik eta behin, eremu horien araubide juridikoa eta haien arteko harremana zehaztea, eta, ondoren, lurraldean instalazio elektrikoak ezartzeari buruzko kasu praktikoak eta errealak aztertzea.
- **Norentzat:** ABE teknikaria-letradua.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 5 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** RDU.
- **Lekua:** On line.
- **Ordutegia:** 9:00-14:00.
- **Data:** Ekainaren 12.
- **Hizkuntza.** Gaztelera.

- **Aurrekontua:** 115 €

4.23 Máster en inteligencia artificial

- **Helburua:** Formakuntza-eredua benetako erabilera-kasuak konpontzera bideratuta dago, eta hori funtsezkoa da udal-eremuan aurkitzen ditugun erronkei aurre egiteko. Ikastaroak Adimen Artifiziala datuen kudeaketarako, prozesuen optimizaziorako eta herritarrekiko komunikazioa hobetzeko tresna gisa erabiltzeko gaitasunak garatzera zuzenduta dago.
- **Norentzat:** Informatikako teknikaria laguntzailea.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 450 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** BIGSEO ACADEMY, S.L.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Maiatzetik irailerarte.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 1497 €

4.24 Chat Gpt arkitektoentzat

- **Helburua:** Tresna arkitektoen lanari buruzko ikuspegi zuzenarekin ezagutzea.
- **Norentzat:** Arkitekto arduraduna.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 8 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Otsaila.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 24 €

4.25 Contratacion pública socialmente responsable

- **Helburua:** Kontratazio sozialki arduratsuaren ikuspegi integrala ematen du, eta helburu sozialak lortzea eta kontratuaren administrazio-agirietan klausula sozialak behar bezala txertatzen diren jakitea du helburu.
- **Norentzat:** ABE kontratazioko teknikaria-letradua.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1

- **Ordu kopurua:** 5 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Maiatzaren 14.
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 40,95 €

4.26 Procedimiento administrativo sancionador en la ley 39/2015 y en la ley vasca 1/2023

- **Helburua:** Administrazio-prozedura zehatzaileak, bere baitan interesdun diren pertsonentzat izan ditzakeen ondorio kaltegarriak direla eta, berezkoak diren eta administrazio-prozedura erkidetik bereizten dituen berezitasunak dauzka. Ikastaro honen xedea eremu zehatzailearen berezko alderdi horiek aztertzea da.
- **Norentzat:** ABE kontratazioko teknikaria-letradua.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 20 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Irailen 10etik urriaren 10era.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 143,85 euro

4.27 Chat Gpt ikastaroa ingeneri eta arkitektoentzat

- **Helburua:** Hirigintza arloan IA ondo erabiltzeko baliabideak ematea.
- **Norentzat:** Bi arkitekto teknikoak.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 40 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** RBC Ingenieros.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Ekaina.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 363 euro

4.28 Udaltop

- **Helburuak:** Udaletako euskara zerbitzuak elkarrekin topo egiten duten topaketa da Udaltop. Egunerokoan langai dituztei bidea topatzeko topaketa da Udaltop. <https://www.udaltop.eus/eu/nor-gara>
- **Norentzat da:** Hizkuntza normalizazioan ari diren profesional, politikari eta herri eragileetako kideentzat.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10-12 ordu inguru (2 egunetan banatuak)
- **Ordutegia:** 09:00-14:00.
- **Erakunde antolatzailea:** Lasarte-Oriako Udala, 3 Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Hirigune Elkargoa.
- **Lekua:** Lasarte-Oria
- **Data:** 2025ekoa, maiatzaren 22 eta 23an
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 70 €

4.29 Redacción de especificaciones técnicas: condiciones, solvencia, criterios de adjudicación y evaluación de ofertas

- **Helburuak:** Zehaztapen teknikoak idazteko gaitzea du helburu. Preskripzio teknikoen agirirako identifikatu diren premien gainean lan egin behar da.
- **Norentzat da:** Berdintasunerako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** Azaroa.
- **Hizkuntza:** Gaztelania.
- **Aurrekontua:** 106,05 €

4.30 Haurtzaro eta nerabezaroko sexu hezkuntza eta ongizate emozionala: erronkak, aukerak eta tresnak

- **Helburuak:** Sexu hezkuntza integralak eta inklusiboak gazteei laguntzean duen garrantzia ulertzea. Egungo erresistentziak eta problematikak laguntzeko gako eta tresna pedagogikoak eskaintzea, bai hezkuntza espazio formalean, bai etxean. Haurren eta nerabeen ongizate emozionala zainduko duen begirada sustatzea, heldua erdigunean jartzen ez duena. Eskola

jazarpenaren fenomeno eta haren ondorio sozioemozionalak esku-hartze komunitarioaren ikuspegitik aztertzea. Gazteek beren sexualitateari buruzko galderak egiten dituzten egungo testuinguruari buruz hausnartzea, eta LGTBIAQ+ pertsonen eskubideak errespetatzearen esparruan bidelagun gisa nola jokatu.

- **Norentzat da:** Berdintasunerako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 30 ordu.
- **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30etara.
- **Erakunde antolatzailea:** Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Uda Ikastaroetan.
- **Lekua:** Miramar jauregia.
- **Data:** Uztailaren 14tik 16ra.
- **Hizkuntza:** Euskara eta gaztelania.
- **Aurrekontua:** 120 €

4.31 “Género y urbanismo. retos y oportunidades”

- **Helburuak:** Emakumeen ikuspuntua aldarrikatzea hiri espazioetan eta emakumeen beharrei erantzuteko egokitzapenean. Genero hirigintza eta hori bultzatzen duen filosofiaren garrantzia azpimarratzea. Arkitekturako eta plangintzako emakume profesionalak ikusaraztea.
- **Norentzat da:** Berdintasunerako teknikaria.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu.
- **Ordutegia:** 9:00-14:30
- **Erakunde antolatzailea:** Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Uda Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren sustapenarekin.
- **Lekua:** Miramar Jauregia.
- **Data:** Iraila.
- **Hizkuntza:** Gaztelania.
- **Aurrekontua:** 0.

4.32 Herramientas útiles para la consecución de la igualdad en la atención a la ciudadanía

- **Helburuak:** Herritarrei arreta ematean genero-ikuspegia aplikatzeko tresnei buruzko ikastaroa, komunikazio inklusiboa hobetzeko eta gatazkak genero-ikuspegiarekin konpontzeko mekanismoak ematea.

- **Norentzat da:** Giza baliabideetako arduraduna.
- **Generoa:**
 - Emakumeak: 1
- **Ordu kopurua:** 10 ordu.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** On line.
- **Data:** 2025eko irailaren 15etik 26ra.
- **Hizkuntza:** Gaztelania.
- **Aurrekontua:** 88,20 €

4.33 Motozerrari txartela (ECC1)

- **Eremua:** Motozerra zaintzea eta trontzatze teknikak.
- **Helburuak:** Ikastaroaren helburua da profesionalak motozerra erabiltzeko eta maneiatzeko gaitzea, gaitasun horiek ziurtatzeko eta Europako motozerrari txartela lortzeko (ECC1, motozerra zaintzea eta trontzatze teknikak). Hartara, lantokian istripuak eta kostu ekonomikoak gutxitzeko eta motozerrarien abileziak eta eraginkortasuna sustatzeko.
- **Norentzat:** Baso ofiziala.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 14 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Hazi
- **Lekua:** Urnieta, Gipuzkoa
- **Data:** Zehazteke
- **Ordutegia:** Zehazteke
- **Aurrekontua:** 0

4.34 Motozerrari txartela (ecc3)

- **Eremua:** Zuhaitzak mozteko teknika aurreratuak
- **Helburuak:** Ikastaroaren helburua da profesionalak motozerra erabiltzeko eta maneiatzeko gaitzea, gaitasun horiek ziurtatzeko eta ECC3 Europako motozerrari txartela lortzeko zuhaitz ertain eta handiak mozteko teknikak. Hartara, istripuak eta kostu ekonomikoak gutxitzeko eta motozerrarien abileziak eta eraginkortasuna sustatzeko.
- **Norentzat:** Baso ofizialak.
- **Generoa:**

- Gizonak: 2
- **Parte-hartzaileen gehieneko kopurua:** 2
- **Ordu kopurua:** 28 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Hazi
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Data:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Aurrekontua:** 0

4.35 ECC1 azterketak

- **Eremua:** Heltzea zaila den lekuetako baso-lanetako istripuetarako jarduera-protokoloak
- **Helburuak:** ECC1 mailako gaitasuna eskuratzea.
- **Norentzat:** Baso langileak.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Parte-hartzaileen gehieneko kopurua:** 8
- **Ordu kopurua:** 14 ordu
- **Erakunde antolatzailea:** Hazi
- **Lekua:** Bizkaian
- **Data:** 2025eko maiatzaren 14tik 15era
- **Aurrekontua:** 45 euro

4.36 ECC3ko azterketak

- **Eremua:** Baso-langileen lanbide prestakuntza eta segurtasun teknikoa.
- **Helburua:** ECC3 txartela lortzea.
- **Norentzat:** Baso-langilea eta baso ofiziala.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 2
- **Ordu kopurua:** Zehazteke.
- **Erakunde antolatzailea:** Hazi.
- **Lekua:** Zehazteke.
- **Ordutegia:** Zehazteke.
- **Data:** Uztaila.
- **Hizkuntza:** Euskara.

- **Aurrekontua:** 140 euro.

4.37 Idazkari kontu-hartzaileentzako oinarrizko prestakuntza praktikoa

- **Helburuak:** Herritarrei arreta ematean genero-ikuspegia aplikatzeko tresnei buruzko ikastaroa, komunikazio inklusiboa hobetzeko eta gatazkak genero-ikuspegiarekin konpontzeko mekanismoak ematea.
- **Norentzat da:** Giza baliabideetako arduraduna.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 1
- **Ordu kopurua:** 20 ordu.
- **Ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** Donostia.
- **Data:** Urria
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Aurrekontua:** 195,30 €

4.38 Gestión de riesgos y adaptación al cambio climático a nivel

- **Helburuak:** Tokiko erakundeak funtsezko eragileak dira klima-politikak planifikatzeko eta aurrera eramateko, bereziki klima-aldaketaren inpaktu negatiboak murriztuko dituzten egokitzapen-neurriak. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legearen 15. artikulua plangintzako funtsezko tresnak jasotzen ditu, besteak beste, lurralde historikoek eta toki-erakundeek garatu beharreko klima- eta energia-planak. Legeak plan horien gutxieneko edukiak ere jasotzen ditu, besteak beste, elementu kalteberak identifikatzea eta ezaugarritzea. Indarrean dagoen legeriak dakartzan betebeharrak kontuan hartuta, ikasturte honen helburua zubi bat ezartzea da, eremu akademikoan kalteberatasun hidrikoaren arloan sortutako ezagutza eta udalerrien plangintza- eta kudeaketa-beharrak bi norabidetan lotzeko. Lurraldearen urrakortasun hidrikoa azter daitekeen zabaltasunetik abiatuta, lehenengo ikastaro honetan klima-aldaketaren ondorioak, baliabide hidrikoen eskuragarritasuna eta hiri-plangintza aztertuko dira.
- **Norentzat da:** Udaltzaingoko subofiziala.
- **Generoa:**
 - Gizonak: 2
- **Ordu kopurua:** 10 ordu.

- **Ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara.
- **Erakunde antolatzailea:** IVAP.
- **Lekua:** Donostia.
- **Data:** Azaroak 11 eta 12.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Aurrekontua:** 119,70 € 239,40

5. AURREKONTUA

Emakumeak: 11.951,62 € (% 45,53)

Gizonak: 14.297,72 € (% 54,47)

Guztira: 26.249,34 €

6.- PRESTAKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK: GENEROA ETA EUSKARA

6.1.- Generoa

Aurreikusitako prestakuntza planean hasierako genero azterketa egin zaio, eta honako datu hauek azpimarratu daitezke:

- ✓ Prestakuntza kopurua (zenbakia eta %):

Emakumeak: 170 (% 52,63)

Gizonak: 153 (% 47,37)

Guztira: 323

- ✓ Taldekako prestakuntza kopurua (zenbakia eta %):

Emakumeak: 141 (% 53,4)

Gizonak: 123 (% 46,6)

Guztira: 264

- ✓ Norbanako prestakuntza kopurua (zenbakia eta %):

Emakumeak: 29 (% 49,15)

Gizonak: 30 (% 50,85)

Guztira: 59

- ✓ Ordu kopurua (zenbakia eta %):

Emakumeak: 1636 ordu (% 46,24)

Gizonak: 1902 ordu (% 53,76)

Guztira: 3.538 ordu

- ✓ Kostea (zenbakia eta %):

Emakumeak: 11.951,62 € (% 45,53)

Gizonak: 14.297,72 € (% 54,47)

Guztira: 26.249,34 €

6.2.- Euskara

- ✓ Taldekako ikastaroak (9 guztira):

Euskara: 8 (%88,9)

Gaztelania: 1 (%11,1)

- ✓ Banakako ikastaroak (38 ikastarotik 33etan ezagutzen da hizkuntza eta horren azterketa egin da):

Euskara: 16 (% 48,49)

Gaztelania: 17 (% 51,51)

- ✓ Ikastaroak guztira (42 guztira):

Euskara: 24 (%57,14)

Gaztelania: 18 (%42,86)

Aurkeztutako datu horiek behin-behineko izaera dute, izan ere prestakuntza-jarduera guztiak oraindik ez dira gauzatu. Horregatik, ezinbestekoa izango da 2026ko urtarrilean berrikuspen osoa egitea, ordurako aurreikusitako ikastaro guztiak burutu diren ala ez egiaztatzeko. Une horretan baieztatu ahal izango da benetako parte-hartze errealearen banaketa, bai generoaren, bai hizkuntzaren, bai kostuen ikuspegitik. Horrela, 2025eko plangintzan egin diren aurreikuspenak eta estimazioak konparatu ahal izango dira errealtatean gertatu denarekin, eta horrek aukera emango du hurrengo urteetarako prestakuntza-politika eta baliabideen banaketa modu zehatzagoan egokitzeko.